



# EGK-ko FORMAKUNTZA PLANA 2025



Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua

Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi

# SARRERA

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua (EGK) gazteriarekin lotura duten gaiak lantzen dituzten 60 bat elkarteren topagunea da. EGK-ren helburuak dira, besteak beste, gazteen eta gazte elkarteen parte-hartzea sustatzea, gazteria politiken garrantzia aldarrikatzea, erakundeek gure ikuspuntuak kontuan izatea eta administrazio hauen eta gazte elkarteen arteko zubi-lana egitea.

EGK-ko Formakuntza Plan honek gazteen elkartegintza indartu nahi du, formakuntzaren bidez laguntza teknikoko prozesuak ezarriz. EGKren ustez, gazte-erakundeak indartzeko eta gazteek parte hartzeko bideetako bat formakuntza eskaintzea da, egungo hezkuntza-sistemaren gabeziarik handienetako bat partaidetzarako hezkuntza baita. Hori sarritan, elkartegintzari dagokio, eta indartu egin behar da, beren lana egiten jarrai dezaten.

Testuinguru horretan, EGK-k ezinbestekotzat jotzen du gazteen elkartegintzarekin zerikusia duten gaiei buruzko formakuntza erraztuko duen esparru bat ematea. Horren ondorioz, EGK-ko Formakuntza Plana 2025 garatu egin da.

## EGK-ko Formakuntza Plana 2025

EGK-ko Formakuntza Planak hiru ekintza-ardatz nagusi ditu:

	ZER DA?	NORK PARTE HARTU DEZAKE?	NOIZ EGINGO DA?	NOLA PARTE HARTU DAITEKE?
<b>FORMAKUNTZA PROGRAMA EGK 2025</b>	EGK 2025 formakuntza programa EGK-k antolatutako hainbat formakuntza dira.	Lehentasunez EGK-ko elkarteak.	Urtean zehar, hilean behin.	Formakuntza bakoitzerako deialdi bat irekiko da, EGK-k dituen komunikazio-bideetatik zabalduko dena.
<b>AHALBIDETUZ PROGRAMA</b>	Ahalbidetuz programa gazte elkarteei formakuntza espezifiko eta indibidualizatua ematean datza, hala eskatzen dutenean.	EGK osatzen duten elkarteak bakarrik.	Urtean zehar, elkarteek hala eskatzen dutenean.	Partehartze@egk.eus posta elektronikoaren bidez harremanetan jarritz.
<b>GAZTE FORMATZAILEEN POLTSA</b>	Gazte Formatzaileen Poltza formakuntza emateko prest dauden gazteak bilatzeko deialdia da.	18 eta 30 urte bitarteko gazteak, elkartegintzan esperientzia egiaztatua dutenak eta aukeratutako gaiei buruzko formakuntza-gaitasuna dutenak.	Deialdia martxoan egingo da eta formakuntzak apiriletik abendura emango dira.	Deialdia martxoan egingo da eta apirilean itxiko da.

# FORMAKUNTZA PROGRAMA 2025

## Zer da Formakuntza Programa 2025?

Formakuntza Programa EGK-k antolatzen dituen formakuntza ezberdinak dira, EGK osatzen duten elkarte guztiei lehentasunez zuzenduak, hilean behin (gutxi gorabehera), eta doan eskainiko dira.

Formakuntzak aurrez aurrekoak izango dira; metodologia dinamikoa eta parte-hartzaileak dituzten formakuntza laburren aldeko apustua egingo da.

## Nork har dezake parte?

Formakuntzaren hartzzaileak EGK osatzen duten elkarteetako gazteak izango dira. Hala ere, plazen esleipenean EGK-ko kide diren gazteei lehentasuna ematen zaien arren, plazak betetzen ez badira, EGK-ko elkartekide ez diren gazteak prestakuntzan parte hartu ahal izango dute. Plazak esleitzeko hurrenkera honako zerrenda honen arabera izango da:

1. EGKren elkarteetako gazteak.
2. EGK-ko lantaldeekin lotutako gazteak (Astialdi Foroetako partaideak, esaterako).
3. EGKrekin elkarlanean diharduten elkarteetako lotutako gazteak.
4. Elkarteetatik kanpo dauden gazteak.

## Zeintzuk dira aurten jorratuko diren gaiak?

Edukiei dagokienez, 2025eko Formakuntza Programarako aukeratutako gaiak honako kronograma honetan azaltzen dira:

GAIK	DATA	FORMATUA
Dimentsio emozionala taldeen kudeaketan	Otsaila	Presentziala Bilbon
Elkarteetan euskera sustatzeko gakoak	Martxoa	Presentziala Gasteizen
Tratu onak eta babes protokoloak astialdi esparruan	Apirila	Presentziala Donostian
Bileren dinamizazioa eta erabakiak hartzeko metodologia eraginkorrak.	Apirila	Presentziala Bilbon
Diruaren kudeaketa elkarteetan	Iraila	Presentziala Bilbon
Boluntariotzaren kudeaketa eta ereduak	Urria	Presentziala Bilbon
Aniztasun funtzionala eta inklusioaren aldeko praktikak hezkuntza ez formalean	Azaroa	Presentziala Bilbon

# AHALBIDETUZ PROGRAMA

## Zer da Ahalbidetuz programa?

Ahalbidetuz programa gazte elkarteei formakuntza ematean datza, hala eskatzen dutenean; beraz, formakuntza espezifikoa eta indibidualizatua da, formakuntza eskatzen duen elkartearen errealitatearen arabera. Programa hau EGK osatzen duten elkarteei zuzenduta dago soilik.

Gazte-erakundeek 2025erako Formakuntza Programan aukeratutako gaien arabera formakuntza eskatu ahal izango dute. Hala ere, elkarteek bestelako formakuntza beharrak badituzte, EGK-rekin harremanetan jarri ahal izango dira eta zer aukera egon daitezkeen ikusi ahal izango dute.

## Nola funtzionatzen du?

EGK osatzen duten elkarteek, haien elkartean formakuntza jasotzeko interesa badute, harremanetan jarri behar dira [partehartze@egk.eus](mailto:partehartze@egk.eus) posta elektronikoaren bidez.

EGK-k jokatzen duen papera Gazte Formatzaileen Poltsako gazteak elkarteekin konektatzean datza. Hau da, gazte formatzailea harremanetan jarriko dugu formakuntza eskatzen duen elkartearekin.

Baina hau ez da guztia... EGK-k formakuntzak ekonomikoki erraztuko du. Hau da, EGK-k kreditu-lerro mugatu bat izango du, eskatzen diren formakuntzen ehuneko jakin bat ordaintzeko, kreditua amaitu arte. EGK, kreditu-lerroa agortzen denean, lotura ekonomikorik gabeko prestakuntzak erraztera mugatuko da soilik.

Ildo horretan, erakunde bakoitzak EGK-k kofinantzatuko duen formakuntza bat eskatu ahal izango du urtean. Prestakuntza bat baino gehiago eskatuz gero, erraztasun ekonomikorik gabeko formakuntza ahalbidetuko da. Gainera, formakuntzak egiteko EGK-k elkartearen esku jarriko ditu espazioak eta materialak. Hala ere, elkartearen lokaletan formakuntza egiteko aukera dago.



# GAZTE FORMATZAILEEN POLTSA

## Zer da?

Formakuntza Programa eta Ahalbidetuz Programa Gazte Formatzaileen Poltsari esker garatuko dira.

Formatzaile gazteak formakuntza emateaz arduratuko dira. Hau da, formakuntza guztiak gazteek dinamizatu dituzte, eta edukiak eta metodologiak aldeztatik adostuko dira EGKrekin.

## Nola funtzionatzen du?

Martxoan deialdi bat egingo da Gazte Formatzaileen Poltsa osatuko duten pertsonak bilatzeko. Deialdia EGKren ohiko komunikazio-bideetatik zabalduko da.


Lan-poltsan sartzen diren pertsonen profila urte bakoitzean aukeratutako gaien arabera da. Hala ere, baldintza komun eta nahitaez bete beharreko batzuk egongo dira:

- 18 eta 30 urte bitartean izatea.
- EAEko elkarrekin esperientzia izatea.
- Formakuntzak euskaraz garatzeko gaitasuna izatea (hala eskatzen bada).
- Dokumentu batzuk aurkeztea, hala nola:
  - CV-a.
  - Formakuntzaren idatzizko planteamendua, aurkeztutako gaiaren arabera (gehienez 100 hitzetan formakuntzaren helburuekin eta edukien laburpenarekin).
  - Elkarrekin bateko kide dela egiaztatzen duen ziurtagiria edo formakuntzarako gaitasuna egiaztatzen duen gutuna (aurretiko formakuntza eman izanaren ziurtagiria, titulazioak...).
- Fakturatu ahal izatea (elkarrekin baten bidez, autonomo gisa...).

Aurten eskainiko diren formakuntzei dagokienez, elkarrekin esperientzia izateaz gain, arlo hauetan ezagutzak dituzten pertsonak bilatzen ditugu:

- Boluntariotzaren erakarpina eta kudeaketa.
- Euskararen sustapena.
- Diruaren kudeaketa elkarrekin.
- Aniztasun funtzionala eta inklusioaren aldeko praktikak.
- Bileren dinamizazioa eta erabakiak hartzeko metodologia eraginkorrak.





**GK** Euskadiko  
Gazteriaren  
Kontseilua  
—  
Consejo de  
la Juventud  
de Euskadi



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA  
DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO